



Internet Egunaren harira hainbat ekitaldi antolatu dituzte Tolosan

EGITARRAUA ▶ Internetek eskaintzen dituen aukerak ezagutzeko jardunaldiak Zerkausion, gaur eta bihar ▶ 5



Atzo arratsaldean, Zerkausion azken orduko prestaketak egiten. I. GARCIA

VILLABONA ▶

Bost zakur hil dira Akulebin bi hilabeteetan

Pozoinduak izan direla uste du Oiarzabalek ▶ 7

Anoeta egin behar dugu

Herriarekin topaketa

Markel Olano,
Gipuzkoako Aizun Nagusirako hautagaitza EAUK

Fidel Azpiroz,
Anoetako alkateleharako hautagaitza EAUK

Maiatzak 17 osteguna
Anoetako plazan, arratsaldeko 7etan

E. EZEIZA



OSCAR RENEDO ▶ PSE-EE-REN HAUTAGAIA

«Txorakeria da eman ezin duguna eskaintzea»

Lan egingo du «etxebizitzaren prezioak jaitسي eta industria garatuaren alde» ▶ 4

ceipro

**Diseinuar eta kreativez halmonean
oinarritutako heziketa**

- **DISEINU ETA PRODUKZIO EDITORIALEAN GOI TEKNIKARIA**
ARTE GRAFIKOTAKO FAMILIA PROFESIONALEAN
GOI MAILAKO HEZKUNTZA ZIKLOA
IRAILPENA - 2. kasurte / 2000 ordu
SARRERA - LH1 - EE I - edo HSACL BAZKILERGIA gaitzuta
- **ARTE GRAFIKODEN AURRINPRIMAKETAN TEKNIKARIA**
ARTE GRAFIKOTAKO FAMILIA PROFESIONALEAN
GOI MAILAKO HEZKUNTZA ZIKLOA
IRAILPENA - 2. kasurte / 2000 ordu
SARRERA - 2. DBE - LH1 - EE I - edo DBH gaitzuta



GUTUN@K ▶

▶ izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak mozteko eskubidea du

Sasi-
parte-hartzea

Jakin genuenean prentsaren bidez Tolosako Udalak erakusketa bat antolatu zuela Zentro Gerontologiko berriaren proiektua ezagutzera emateko, bertara joan eta aho bete hortz geratu ginen, ikusi genuenean zer den alkatearentzat herriaren parte-hartzea (alkateak berak dio herri partizipazioaren bultzatzaile amorratua dela). Hain zuzen ere, berriro ere oharatu ginen—gerontologikoa itxi zutenetik bi urteotan ikusi dugun bezalaxe—zenbateraino

utzi nahi dion erabakitzen herriari.

Proiektua aurkezteko bideoan alkateak zera adierazten digu: orain arte egin duten lan izugarriaren ondoren, heldu zaigula parte hartzeko ordua, hau da; gure laguntza behar dutela aukeratzeko, batetik, gerontologikoko plazaren zoruaren kolorea (bi aukera ematen dituzte) eta, bestetik, txapela bat, jarri edo ez jarri, eta jar-tzez gero, ia horizontala edo alde batera okertuta nahiko genukeen.

Hori al da herriaren parte-hartzea?

Guk pentsatzen genuen,

orain arte behintzat, parte-hartzea beste gauza bat zela: gai inportanteak erabakitzeko orduan esku hartzea. Esaterako: gerontologiko zaharra—beharrak zela bistakoa da—mantendu edo itxi.

Edo, gerontologikoaren utsiapena publikoa edo pribatua. Izan ere, gure alkateak gauza asko esaten ditu, baina argi dago 10 pezetekin 7rekin baino gehiago egin daitekeela.

Eta zer elementu arkitektoniko dira garrantzizkoak gerontologiko berrian? Arkupeak edo gure zaharrak euritik edo eguzkitatik behar bezala babestuko dituen espazioak (ez

txapela hori); zonalde horretako eraikin dentsitate handia arintzeko berdeguneak;

Bukatzeo, Udalak lursaila jarri behar duenez eta erakuntza gastuaren zati bat, garrantzizkoa al da gerontologiko berriaren Gobernu Batzarrean herritarren ordezkariak egotea beren interesak zaintzeko? Honi jarraikiz, eta abar eta abar luzea.

Alkateak partizipazioa deitzen dionari guk dekorazioa deitzen diogu. Alkateak, gai honekin behintzat, herritarroi uzten digun aukera bakarra apaingarri hutsak izatearena da. Horixe ari da erakusten

behin eta berriro: informazioa ezkutatu egin digu eta ez digute egia esan; arazoari soluzio-bidea aurkitzeko Alderdien Mahaiko kide izateari uko egin dio; eta, gerontologiko berria egiteko plenoan ez digute hitz egiten utzi.

Alkate jauna, geroz eta gehiago gara *hatza txupatzeari* utzi diogun herritarra, eta gero eta gehiago gara begiratzaren dugunak zuk zer egiten duzun eta ez zuk zer nahi diguzun saldu, sarritan antolatzen duten kanpaina mediatikoe-tan.

MANU LEUNDA (GERONTOLOGIKOAREN ALDEKO PLATAFORMA) ▶ TOLOSA

EAE-ANVren aurkezpenak Tolosan eta Belauntzan

NEREA URBIZU

Herriz herri ari dira alderdi ezberdinetako zerrendak aurkezten. Herenegun iluntzean Tolosako udaletxean Tolosako EAEn zerrenda eta mitina eskaini zuten. Bertan, Antton Izagirre zerrendaburuak defendatuko dituzten ideiak plazaratu zituen: «Egiteko handi bat dugu eskuar-tean, Euskal Herriaren eta euskal herritarren eskubide guztiak aintzat hartuko dituen bake prozesuari sostengua eman eta aurrera ateratzea».

Beste erronka bat «tolosarren herri interesen aldeko apustua irabaztea» da. «Historikoki eta azken urteetan bereziki, ezkerreko balore sozialen alde, bakea eta autodeterminazioaren alde, ingurugiroaren alde, baserriaren defentsan, edota presoen eta giza eskubideen alde egin dugun».

Bestalde, EAEn Udalez ere aritu zen Izagirre zerrendaburuak, ereduak aldaketa behar duela esanez: «Euskararen erreferentzialtasunaren galera ekarri du, gizarte baliabideen ahultzea, gerontologikoa itxi eta haren pribatizazioa, etxebizitza politika eraikin etxeen interesen arabera egitea, auzoen izatea ahaztea, eta abar».

«Politika herritarra»

Azkenik, EAEk bideratu nahi duen politika, besteen artean, «herritarra, zintzoa, militantea, parte-hartzailea eta politika sozialen aldekoa» izango zela adierazi zuen Antton Izagiritrek.

Belauntzan ere EAE-ANVren zerrenda aurkeztu zuten joan den larunbatean, hainbat herritarren babesarekin. Iratxe Arana da alkategaia eta ondorengoak, Juan Mari Garmendia, Ana Jesus Argote, Jabier Goikoetxea, Iban Ugartemendia, Joxe Luis Zelaia eta Jon Arana dira.





MINUTU ERDIAN ▶

EAEren ekitaldia
bihar, Leitzan
20:00etan

EAE ▶ Udal Hauteskunde kanpaina dela eta, Leitzan bihar 20:00etan EAE-ANV alderdi politikoak ekitaldia egingo du plaza inguruan. Ondoren, afaria izanen da Torrea tabernan. Hori dela eta, alde aurretik txartelak erostea eskertzen dute antolatzaileek, alde aurretik jakin dezaten zenbat lagun bilduko diren. Txartelak Torreen bertan eros daitezke.

'AHT Tolosan'
txosten
informatiboa

AHT ▶ AHT Gelditu! Elkarlanak gaur 20:00etan prentsaurrekoa egingo du Tolosako udaletxean. Hauteskunderi begira, eta Udalek proiektu honek izan ditzakeen eraginak kontuan izan ditzaten eta herritarrek gehiago jakin dezaten, bertan, AHT Tolosan txosten informatiboa aurkeztuko baitute. Udaletxeko bigarren solairuan izango da.



Tolosako ikuspegia, AHTren ibilbidea izango litzatekeena islatuz. HITZA

EKITALDIAK ▶

ANOETA

Gaur, 19:00. EAJko Markel Olano ahaldu nagusirako hautagaia eta Fidel Azpiroz Anoetako alkatetzarako hautagaia herriko plazan programa banatzen ariko dira. Ondoren, udaletxeko pleno aretoan Anoetako EAJren hautagaitzaren aurkezpena egingo dute.

LIZARTZA

Gaur, 20:00. Lizartzako ezker abertzaleak deituta herri batzarra egingo dute udaletxean.

TOLOSA

Gaur, 19:00. Memoria historikoari buruzko prentsaurrekoa Begoña Lasagabasterren eskutik (EA), Alkartetxean.

ESANA ▶

«Garrantzitsuena aldaketa da, eta horretarako gobernu anitz eta aurrerakoi bat osatzea»

PATXI ZABALETA ▶ LEITZA

BI HITZETAN ▶ JON AZPIROZ (BEDAIOKO ARTUBI ELKARTEKO KIDEA)

«Bedaion zer nahi dugun entzun du Udalak,
baina oraindik bide luzea dago egiteko»

Naiara Garzia ▶ 90. hamarkadatik Artubi kultur elkartearekin ari da Bedaion. Elkarte hau bedaiotarrek eta Bedaiotik kanpo bizi diren bedaiotarrez osatutakoa da. Bere helburua ekintza kulturalak lotzea da, hau da, jendea elkartzeko aktibitate ezberdinak egitea. Jon Azpiroz (Bedaio, 1975) Artubiko elkartearen kidea da.

Zer nolako balorazioa egiten duzu Tolosako Udalaren azken lau urteotako agintealdiaz?

Bedaion zerbait egin den unetik baikorra dela pentsatzen dut, baina ez bere osotasunean, aurrera goazela esan nahi duen heinean baizik. Hau da, gure hitzak eta nahiak kontutan hartuak izan direla, eta behintzat horretan lanean hasi direlako. Zentzu honetan, Udalak egin duen lana positiboa da. Bedaion zer nahi dugun entzun du Udalak, baina oraindik bide luzea dago egiteko. Orain guretzako garrantzitsuena den hitzarmena sinatu dugu, eta hori baikorra da guretzat, baina kakotxen artean. Oraindik bide luzea dago egiteko eta Otik 100erako bidean, oraindik

1ean edo 2an gaudela pentsatzen dut.

Oro har, zer eskatuko zenloke hurrengo Udalarari?

Bedaion eta landa auzoetan inplikazio, ardura eta konpromiso gehiago eskatzen diot. Tolosako biztanleak izan arren, ez gara tolosarrak sentitzen, urte hauetan guztietan ez baitigute inolako jaramonik egin. Bedaiotarrak bedaiotarra dela esango du, ez dela tolosarra. Konpromisoa, inplikazioa... Hitz potolo horiek garrantzitsuak dira egiten badira, bestela hitz potolo hutsetan gelditzen dira. Honetaz gain, Bedaion zerbait egiten dutenean, bedaiotarrengan pentsatzea ere eskatzen diot Udalarari, eta bertakoei ideiak elkartrukatzeko, guk haiekin elkartrukatzen ditugun edo elkartrukatzen saiatzen garen bezala. Gu aurpegiz joaten gara eta zentzu berean guk nahi duguna zera da, Tolosako Udala ere aurpegiz etortzea.

Zure esparrutik, zer nabarmendu nahiko zenloke Udalarari?

Artubik bedaiotarren izaera



N. URBIU

lotzen duen heinean, jendearen artean gauzak egin ditugu, jendea auzo hil batean bizi dela sentitu ez dezan, eta zentzu horretan Bedaiok kultur mugimendu handia dauka. Uste dut Udala gure lanak duen garrantzia ikusten hasia dela. Zentzuzko proposamenekin joan gara eta horregatik pentsatzen dut Udalak sinatu nahi izan duela Bedaiok luzatutako proposamena. Hitzarmen hori Bedaioren etorkizuneko proposamen txiki bat da. Udalak zer egin dezakeen?

Bedaio, esaterako, Aralarko sarrera da eta beti Larrantz eta San Martinera jotzen dugu, eta Bedaiok horrelako bultzada behar du Tolosako jendeak ere hemengo paisaia eta naturaren baliabideetaz goza dezan. Bedaio Tolosako birika berdea eta aisialdi gunea izan daitekeela pentsatzen dugu, baina aldi berean ez dugu turismoa mota bat sortu nahi, hau da, auzoaren aurka doan turismoa mota bat erakarri nahi, orduan Bedaioko izaera puskatu egingo bailitzateke.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

HILBERRIAK - URTEURRENAK - ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN 120.000 IRAKURLE

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen dira
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info
Tel.: 943 65 56 95



OSCAR RENEDO ▶ PSE-EEKO TOLOSAKO ALKATETZARAKO ZERRENDABURUA

«Mirariak ez daude, txorakeria da eman ezin duguna eskaintzea»

Gazteenganako apustua, industriaren garapena eta etxebizitzaren prezioak jeisteko lan egingo duela dio PSE-EEKo Tolosako alkatetzarako hautagaiak

ESTI EZEIZA

14 urte daramatza Oscar Renedo (Tolosa, 1962) PSE-EEren Tolosako alkatetzarako hautagaiak udaletxean zinegotzi bezala lanean. Hilabete honetako udal hauteskundeetara begira baikortasunez eta gogotsu ageri da. Bere alderdikideen esanetan «gaztetasuna eta aldi berean esperientzia biltzen ditu».

Zein da lau urte hauetaz egingen duzun balorazioa?

Udaletxean izan dugun partaidetza oso baikorra izan da. Oposizioan egon arren, modu arduratsuan egin dugu lan, ahal dugun guztian lagundu dugu, eta estreinakoz Estatuak Tolosako proiektuetarako dirua ematea lortu dugu. Izan ere, sozialistek Espainiako Gobernua eskuratu zutenean, ikusi nuen Tolosara dirua ekartzeko aukera zegoela. Hala, Estatuari egin zitezkeen pare bat eskaeretan geneuzkan: Txotxongiloen Nazioarteko Zentro iraunkorra eta Txirindularitzaren teknifikaziorako eskola. Hala, proiektu hauetara dirua ekarri dugun lehenak izan gara. Dena den, beste hainbat gaitan ere eragin dugu, esaterako anbulatorioareko arazoetan, Voith-Gorostidiko eremuko etxebizitzetan (hasieran proposatutakoak baino babes ofizialeko etxebizitza gehiago egitea lortuz). Bestetik, plan orokorrari dagozkionez, gure ikimenari jarraituz Batzar Orokorrean onartu zen etxebizitzaren %30a babes ofizialekoa izatea, eta ez hasiera batean proposatzen zen bezala, %27a bakarrik. Beraz, legealdi honetan ekarpen handiak egin ditugu: une batzuetan presioa eginez eta beste batzuetan, lagunduz.

Zeintzuk izan dira azken legealdiko zulo nagusiak?

Gure ustez tamalgarriena Gerontologikoaren itxiera izan zen. Legealdi honetako puntu beltza izan da. Aldundiak Gerontologikoa itxia erabaki zuen eta Tolosako Udalak ezin izan zuen ezer egin honen aurrean. Hala ere, egia da, erabaki bera hartu zuela Eibarren baina Udalaren presioagatik, hau PSE-EEKoa izaki, ez zutela lortu. Baina egoera honen aurrean, elkarririk irakurri hasi beharrean irtenbide bat bilatzen hasi ginen. Aurkitu dugun irtenbidea ez da hobereana izango, baina ona da. Zentro berri bat, zentrikoa eta kalitatezkoa izango dugu. Saiatuko gara, herritar guztien esku egon dadin, aurrekoaren parekoa egiten, eta ez garestiagoa, batzuek dioten bezala. Pertsona batzuek esaten duten bezala ez baitira gauzak, eta gezurretan ari dira ezer ez dugula egin esaten ari direnak.



ESTI EZEIZA

ZULOAK

«Aurreko legealdiko puntu beltza izan da Gerontologikoaren itxiera; gure ustez, tamalgarriena»

rean, elkarririk irakurri hasi beharrean irtenbide bat bilatzen hasi ginen. Aurkitu dugun irtenbidea ez da hobereana izango, baina ona da. Zentro berri bat, zentrikoa eta kalitatezkoa izango dugu. Saiatuko gara, herritar guztien esku egon dadin, aurrekoaren parekoa egiten, eta ez garestiagoa, batzuek dioten bezala. Pertsona batzuek esaten duten bezala ez baitira gauzak, eta gezurretan ari dira ezer ez dugula egin esaten ari direnak.

Zer da zuen alderdiak eskaintzen duena?

Mirariak ez daude, txorakeria da eman ezin duguna eskaintzea. Udaletxean urte gehien daramatzen zinegotzia naiz,

EUSKARA

«Honekiko errespetua erakutsi dugu beti, baina ez diogu beste batzuek ematen dioten protagonismoa ematen»

eta badakit, udaletxearen gauzak aurrera eramatea oso zaila dela. Azken legealdi hau oso ona izan da, baina lau urte hauetan gauzatu diren proiektu asko aurretik datoz: industriagunea, Usabal kiroldegia... Guk orain arteko ildoarekin jarraituko dugu: gure herrira dirua ekartzen saiatuz, bizi kalitatea hobetu nahian eta egunerorik lan egiten. Eragina egiten saiatuko garen arloak bereziki ondorengoak izango dira: lan arloa, orain arte lantegiak berrezarri baditugu ere, ez baititugu enpresa berriak ekarri. Etxebizitzetara dagozkionez, hauen prezioa jeisten saiatuko gara, espekulazioarekin amaitzeko garaia baita. Bestetik, Abasto-

AHT

«Hasiera batean proiektu suntsitzailea izango dela badirudi ere, ez da hala. Hemen ia ez dugu ikusi ere egingo»

sen kasuan, gazteekiko apustua egin nahi dugu, hau berriro izan behar du. Azkenik, Usabal kiroldegia amaitzeko 3. fase bat falta da eta hau ere gazteentzako izan behar duela uste dugu, aisiarekin eta kirolarekin lotuz. Hala ere, gai hauetan ez ezik beste batzuetan ere egingo dugu lan.

Ezker Batua Berdeak eta Aralar koalizioan aurkezteak eragina izango al du?

Gure ustez, Ezker Batuko asko ez datoz bat erabaki honekin eta hauek nahiko galduta geratu dira. Hori dela eta, herritar hauei dei egiten diegu, esanaz gu hor gaudela, eta ezkerrean ordezkaritza Udalean izango dela.

Zer nolako emaitzak izatea espero duzue 27ko hauteskundeetan?

Gure helburua igotzea da, egungo bi zinegotziak baino gehiago lortuko ditugula uste dut. Aurkeztu dugun zerrendan, duela lau urtekoan ez bezala, ia denak tolosarrak gara. Izan ere, bizi ditugun baldintzetan, zaila da hautagaiak lortzea, gogorra baita bizkarzainak ondoan dituzula ibiltzea.

Zer duzu esateko ezker abertzalearen ilegalizazioaren inguruan?

Beraiek ere bazekiten eroriko zirela. Niri ez zait gustatzen erabaki judizialaren inguruko balorazioak egitea. Hala ere, nik diodana da, ezker abertzalea gehiago saiatu izan balitz Tolosan, beste zenbait herritan egin duten bezala, aurkezteko aukera izango zutela. Hausnarketa bat egin beharko luke ezker abertzaleak jakiteko, zergatik ez diren onartu Tolosako zerrendak. Ezker abertzaleak zuzendutako estrategia bat dago, beraiek jakingo dute zein helbururekin. Nik nahiago nuke alderdi guztiak ordezkatuak egongo balira Udalean baina jokatzeko baldintza batzuk daude.

Zenbatero garrantzia ematen diozue euskara sustatzeari?

Euskararekiko errespetua erakutsi dugu beti. Baina ez diogu beste batzuek ematen dien protagonismoa ematen, eta ez dugu arma jaurtitzaile bezala erabiltzen. Udalean onartu diren barne araudi guztiak babestu ditugu eta ez dugu inolako bazterkerarik egin. Gure ustez, euskara bultzatzeko bide egokiena irakaskuntza da, hau da motorra.

Eta, ikasteko asmorik bai?

Orain dela urte batzuk pentsatu nuen, baina bizimoduagatik edo azkenean ez dut ikasi. Ulertu nahiko egiten dut, eta gustatuko litzaidake ikastea, baina ez, ez dut asmorik.

Zaborteagatik Tolosaldean ere eragina izango du.

Inork ez du bere herrian eduki nahi errausketa plantarik, baina ez dago beste irtenbiderik. Ezin dugu hondakinak zaborregietara botatzen jarraitu, eta ez dut uste honek horrenbeste kalterik eragingo duenik, batzuek exajeratu egiten dute. Beste bide batzuk aurkeztu beharra dauzkagu, eta jendea kontzientziatu.

Zuzenean eragiten duen gaia: AHT. Zer duzu esateko?

Aurrerapenerako diren egitasmo guztiak onak dira. Hasiera batean, proiektu suntsitzailea izango dela badirudi ere, ez da hala. Tolosaldean ez dugu ia ikusi ere egingo. Bestalde, Abiadura Handiko Tren zargaria izango da bidaia luzeak

ARGINDARRA ▶

Argindarraren mozketak, hilaren 22an

«Bezeroei zerbitzu hobea emateko lanen ondorioz», instalazioetan hobekuntza eta mantenimendu lanak egiten ari direla jakin arazi dute Tolargitik. Horren ondorioz datorren asteartean, hilaren 22an, argindar mozketak egingo dituzte, 08:30etik 10:30era, San Frantzisko ibil-tokiko 15. zenbakian.

HEZKUNTZA ▶

Kike Amonarrizen hitzaldia gaur, Hirukiden

Eskola beharrezkoa da, baina ez da nahikoa. Zer egin behar dugu guraso euskaldunok? gaia landuko du gaur Kike Amonarrizek Hirukide-Jesuitinetako aretoan 18:30ean eskainiko duen hitzaldian. Bereziki euskara erabiltzen duten familiek seme-alabei laguntzeko jorkaerak argitzeko aukera izango dute.

OSASUNA ▶

Obesitateari buruzko hitzaldia gaur, Amarotzen

Amarozko auzo elkartearen Lokaletan (Dispensario ondoan) *Obesitatea. Osasun publikoaren arazoa, XXI. mendeko izurritea* hitzaldia izango da gaur, 19:30ean. Elikadura sendagilea eta Imakulada ikastetxeko osasun hezitzailea den Jesus Mari Martinezek emango du hitzaldia.

GIZARTEA ▶

Makilaje ikastaroan izen ematea

Maiatzaren 31ean hasi eta ekainaren 28ra arte makilaje ikastaroa eskainiko dute Tolosako Kultur Etxean. Hain zuzen ere, norberak bere burua makilatzen ikasteko antolatuta dute hamar orduko iraupena izango duen ikastaroa. Parte hartzeko 30 euro ordaindu beharko dira Gal-tzaundiko egoitzan (Nafarroa etorbidea 6. zenbakia), edota telefonoz 943 65 50 04 zenbakian, 08:00etatik 14:00etara deituta.

TEKNOLOGIA ▶

Internet Eguna antolatu dute gaur eta bihar, Zerkausian

10:00etatik 20:30era, Internetek eskainitako aukera sorta ezagutu ahal izango da hainbat jardueren bidez, bi egunetan

ERREDAKZIOA

Bigarren urtez jarraian Interneten Mundu Eguna ospatuko da gaur, eta Internet & Euskadi elkarteak teknologia berrien jai handi honekin bat eginez, bi jolas jardunaldi antolatu ditu Tolosan. Hala, atzo Jokin Bildarratz Tolosako alkateak, Angel Irastorza Gipuzkoako Foru Aldundiko Informazioaren GIZARTEAREN eta Sistemen zuzendariak, Ray Fernandez Internet & Euskadi erakundearen lehen-dakariak, Iñaki Suarez SPRiko ordezkariak, Txomin Alkorta KZguneko ordezkariak eta Sabino San Vicente Euskalteleko ordezkariak azaldu bezala, Tolosako Zerkausia Euskadiko erreferentzia izango da gaur eta bihar Interneten munduari dagokionez.

Interneten inguruko fenomeno nabarmenetako bat, *Second Life* delakoa, eta mundu birtual honen barruan KZguneeetatik egiten ari den ginkana, zuzenean, ezagutzeko aukera izango da; Euskal Herriko Interneten egungo eta etorkizuneko egoerari buruzko eztabaidan parte hartzerik izango



Zerkausian prestaketak egiten, atzo arratsaldean. I. GARCIA

da; sareko jokorik berrienak eskuragarri egongo dira (*Wii tennis, Dance, dance revolution, Guitar hero: karaoke* eta *Futbol*) eta oso eduki eta zerbitzu erabilgarriak eskaintzen dituzten web orrietan sartu ahal izango du nahi duen orok bi egunetan zehar, 10:00etan hasi eta 20:30ak arte.

Interneten sartzeko konektatutako 70 ordenagailu egongo dira eta, horren premia dutenek, irakasle-monitore elebidunak edukiko dituzte. Horrez

gain, zerbitzu eta eduki interesgarriak eskainiko dituzten 13 stand jarriko dituzte. Halaber, gaztetxoentzat euskarazko hezkuntza aplikazioak jarriko dituzte. Euskadi digital irratia Zerkausitik zuzeneko saioak egingo ditu, eta *Creative commons* musika eskainiko du. Egitarauaren baitan, Badaion izango da Mendikoiren autobusa Interneten sartu ahaliko dutelarik bedaiotarrek, eta Lege Biltzarreko autobusa ere bertan izango da.

MUSIKA ▶

Mal de ojo taldea, bihar, Fronton kafetegian

23:30etik aurrera izango da kontzertua; 'Topa Kalabera' azken lana aurkeztuko dute



Mal de ojo taldeko partaideak. HITZA

ERREDAKZIOA

Mal de ojo musika taldearen doinuak izango dira bihar entzungai Fronton kafetegian, 23:30etik aurrera eskainiko duten kontzertuan.

Topa Kalabera da taldearen zazpigarren diskoa. Andoaingo Garate estudioan grabatu zuten udan, eta rumba dago kantuetan, boleroa entzun daiteke, soinu latinoak ez dituzte alboratu eta popari ere keinuren bat egin diote. Azken finean iturri askotatik edan dute Mal de ojo taldekoek azken lanean. Aitor Atxega (baxua), Rafa Zaragueta (bateria), Ander San Jose (perkutsioak), Jon Mari Beasain (kitarra) eta Joseba Loinazek (teklatura) osatzen dute rumbak abesten dituen euskal talde hau.

GIZARTEA ▶

Dokumentala eta mahai ingurua gaur, Kultur Etxean

I. TERRADILLOS

Ereite elkarteak antolaturiko *Kulturarte*an jardunaldien baitan, *La liga de los olvidados* dokumenta izango da, Kultur Etxean, 19:30ean. Jose Luis Tiradoren lan honek futbol-baseko jokalarik, klub eta futbol-taldeen gorabeherak kontatzen ditu, Smal Hoine, Freddy Machaca eta Yakhya Diarraren bizipenen bitartez, eta aldi berean, immigrazioaren fenomenoak gure hirrietan sortarazten dituen aldaketak ikustarazten ditu. Dokumentalaren ostean, 20:30ean, Isabel Rekalde moderatzaile dela, mahai-ingurua egingo dute, gaur egun tolosarrak diren jatorri ezberdinetako etorkinen artean, integrazioa, identitatea, bozkatzeko eskubidea eta abarren inguruan.

TELEFONOAK ▶

Larrialdia. ((112)) Osasuna.

- ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
- ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.** Medikua: 65 23 39
- ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
- ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
- ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
- ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
- ▶ **Ibarralde.** Osasun etxea: 672411
- ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
- ▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720
- ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
- ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
- ▶ **Orexa.** Medikua: 682228
- ▶ **Tolosa.**
 - ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
 - ▶ San Esteban: 006800
 - ▶ Gernikako arbola: 006900
 - ▶ Amarozko dispen.: 672637
 - ▶ Asunzion Klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdia)
 - ▶ DYA: 672536
 - ▶ Gurutze Gorria: 674888
 - ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
 - ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930
- ▶ **Garraioak.**
 - ▶ Renfe: 902 24 02 02
 - ▶ Donostiako autobusa: 361740
 - ▶ Tolosaldea bus: 650621
 - ▶ Leitzarar autob.: 948 221015
 - ▶ Taxia: 670420
 - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- ▶ **Besterik.**
 - ▶ Ertzaintza: 538820
 - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
 - ▶ Tolargi: 650016
 - ▶ Iurrarmendi egotza: 670325
 - ▶ Tolosa gasa: 675320

ZIZURKIL ▶ MAIATZA SALTSAN

Urdangarinen eta Uriberen 'Portukoplak' bihar, Atxulondon

Hernandorena Lehiaketako liburuaren aurkezpena, bertso afari musikatua eta 9. Biatloia, asteburuko beste ekitaldiak



Kirmen Uribe eta Mikel Urdangarin itsasoari buruz abestuko eta olerkiak irakurriko dituzte. HITZA

IMANOL GARCIA

Ekitaldiz beteriko asteburu luzea izango dute Zizurkilen Maiatza Saltsan egitarauaren baitan. Gaur bertan Teodoro Hernandorena Ipuin Lehiaketako liburuaren aurkezpena egingo du Udalak eta Lupe Lekuona ipuin kontalariak saio bat emango du 7 eta 10 urteko haurrentzat. Atxulondo kultur etxean izango dira ekitaldiak, 18:00etan.

Asteburu honetako ekitaldi interesgarrietako bat bihar egingo dute Kirmen Uribe idazleak eta Mikel Urdangarin musikariak. *Portukoplak* emanaldia 20:00etan egingo dute Atxulondo Kultur Etxean. Sarrerak 3 euro balio ditu.

Zaharregia txikiagia agian egitasmoa eta gero, lan berri hau taularatu dute Urdangarin eta Uribe. Elkarrengana

biltzeko arrazoia *Portukoplak* liburuaren izan da, Kirmen Uribeburuzko kantak eta poemak bilduz egin duena. Zuzenean kantatuko dituzte bertso zaharrak eta berriagoak, eta olerkiak eta ipuinak irakurriko dituzte, guzti-guztiak mundu batekin zerikusia dutenak itsasoarekin.

Emanaldia soila izango da eta eskuzabala izango dutela diote: «Soila, Mikelek berak garai batean bezala kantatuko baititu tradiziozko kantak, aho-tsarekin soilik edo gitarra hutsaren laguntzarekin. Eta esku-zabala, bai Mikelek bai Kirmenek propioak ez diren testuak irakurriko eta kantatuko baitituzte, besterenak».

Emanaldiaren aurkezpenaren azaltzen denez, «Julio Caro Baroja antropologoak esaten zuen barrualdekoentzat kostaldeko jendea ez zela guztiz fi-

dagarria, baina alaiagoak zirela». Uribe eta Urdangarin ere «ez dira batere fidagarriak zentzu batean, beti bide berriak jorratzen ari direlako. Tradizioa berritu guran, bila beti. Azkenean, portuko jendearen ezaugarria ere horixe baita, bila ibiltzea».

Bertsokak eta biatloia

Etzirako beste emanaldi interresgarri bat antolatu dute. 21:00etan hasita, Zizurkil Goiko Zentroan bertso afari musikatua egingo dute. Eñaut Agirrek musika eta bertsoak uzartuko ditu eta Amaia Agirre eta Jexu Mari Irazu bertsolariek bapatekoan ariko dira. Afariak 15 euro balio ditu eta txartelak salgai daude Zentroan eta Aurrera tabernan.

Igandean kirolaren txanda izango da. 09:45ean Zizurkil Goiko Plazatik abiatuta 9. Biatloia egingo dute. Hiru modalitate daude: 7-9 urte bitartekoak; 10-12 urte bitartekoak eta 13-15 urte bitartekoak. Parte-hartzaile guztien artean kamisetak banatuko dituzte, haurren artean gozokiak eta hamaiketako guztientzat. Izen-ematea doan da eta Aurrera plazako Udal Bulegoetan edo 943 69 24 95 telefono zenbakian egin daiteke. Azken eguna horretarako bihar da.

IRURA ▶ KULTUR ASTEA

Ipuin kontaketa saioa gaztetxoentzat

Gaurkoan jubilatuentzat ibilaldi neurtua, Eriz magoa eta diapositiba emanaldia



Atzoko ipuin kontaketa saioaren une bat. I. GARCIA

I. GARCIA

Izurako Kultur Astearen baitan atzokoan ipuin kontaketa izan zuten liburuetan herriko haurrek. *Mari Lurrek 5.730.622 ipuin dakizki* saioa entzun eta ikusi ahal zuten. Bestalde, Sabin Urzelaiak odol-emateei buruzko hitzaldia eman zuen.

Gaurkorako ere antolatu dituzte zenbait ekitaldi.

16:15ean jubilatuek ibilaldi neurtua egingo dute, plazatik aterata herriko kaleetan zehar. 18:00etan Eriz magoaren emanaldia ikusi ahalgo dute haurrek Ikastolan eta egunekoak amaitzeko Oihana Larrinagak diapositiba emanaldia emango du, 19:30ean Ikastolan, Malawin Africa Directo GKEko kideek Alinase Ospitalean egiten duten lanaren testigantza emanez.

ANOETA ▶ GIZARTEA

Danborrada eta herri lasterketarako deialdiak

ERREDAKZIOA

Anoetako festetarako bikote mistoen herri lasterketa eta haurren danborra antolatu dituzte. Lasterketa ekainaren 3an egingo dute. Benjaminek 1.200 metro egin beharko dituzte (600 m. bikotekide bakoitzak); alebinek 2.400 m. (1.200 m. bakoitzak); infantil eta kadeteek 2.400 m. (1.200 m. bakoitzak) eta 16 urtetik gorakoek 2.400 m. (1.200 m. bakoitzak). Benjamin eta alebin guztiek dominak jasoko dituzte eta kamisetak infantil, kadete eta heldu guztientzat. Garaikurrak emango dizkiete lehen bikoteei eta opari sorkak zozketatuko dituzte partaideen artean. Izen-ematea kiroldegian edo Ikastolan egin daiteke hilaren 21a arte.

Bestalde, haurren danborradarako izen-ematea udaldegian edo ikastolan egin daiteke eta bihar da azken eguna. HHko 2. eta 3. mailako txapel

eta danbor berdeak izango dituzte; LH1, 2 eta 3koek txapel gorriak eta danbor gorri ertainak eta LH4tik aurrerakoek txapel beltzak eta danbor gorri handiak. Entseguak Ikastolan egingo dituzte, hilaren 29an 17:30ean eta ekainaren 4an 17:00etan txarangarekin. Danborrada eta gero partaideen artean barraketarako txartelak zozketatuko dituzte.

Txartel elektronikoa

Herritarren txartel elektronikoa erabiltzen ikasteko ikastaroak antolatu dituzte. Ezinbestekoa da txartela edukitzea. Hilaren 24an (18:00-19:00 eta 19:30-20:30), ekainaren 21ean (11:00-12:00), uztailearen 5ean (18:00-19:00 eta 19:00-20:00) eta uztailearen 19an (16:00-17:00 eta 17:00-18:00) izango dira ikastaroak. Izen-ematea udal bulegoetan, liburuetan eta kiroldegian egin daiteke.

iragarki laburrak ▶

LANA

Sukaldariak. Jangeletarako, eskolak. 943 44 48 66.

Lorategietako. Langileak, garbiketa, mantenua, postu libreak. 699 13 45 86.

Muntairako. Pertsona bat behar dugu ekitaldi muntaietarako. Dekoratuak, eszenatokia, aulkiak

jarri... Interesatuak deitu ondorengo telefonora 69 18 41 lehenbailehen.

Sukaldaria. Villabonan sukaldaria behar da. 943 69 19 33.

Zerbitzaria. Tolosaldean taberna baterako zerbitzari bat behar da lau orduz lan egiteko. Interesatuak deitu ondorengo telefonoetara: 635 74 52 91/943 69 43 13.

VILLABONA ▶ GIZARTEA

Bi hilabete eta erdian bost zakur hil dira Akulebi baserrian

Dani Oiarzabalek pozoinduak izan direla uste du eta autopsia egingo diete txakurrei heriotzen zergatia jakiteko

ASIER IMAZ

Akulebi baserriko bost zakur hil dira azken bi hilabete eta erdian. Bertan bizi eta lan egiten duen Dani Oiarzabalen ustez, «pozoinduak izan dira, ez baita normala bost zakur hain denbora gutxian hiltzea egoera horretan». Zalantza gutxi dituen arren, «asko kostata baina azkenean Getxora eraman ditugu zakurren gorpuak, bertan autopsia egin eta heriotzen zergatia ziurtasunez jakiteko».

Hasieran hiru eta ondoren bi

Oraindela bi hilabete eta erdi, hiru zakur zituen etxean Dani Oiarzabalek, *Pintto*, *Argi* eta *Lagun*. «Pintto hil zenean zalantza nituen. Baina aste gutxitara beste biak hil zitzaizkidanean, zalantza guztiak argitu zitzaizkidan». Hau gertatu eta gero, Getariako lagun batek bi zakur eman zizkion Dani Oiarzabali. Hasieran garajejan jarri zituen, lekura ohitzeko. Astebe-tera ordea atarian utzi zituen



Maiailen txikia *Pintto* eta *Argi*rek in jolasean baserriaren atarian. HITZA

eta «hauek ere pozoindu egin zituzten». Zakurren gorpuak autopsia egitera eraman dituzte Getxora, «asko kostata lortu

dugu, izan ere Tolosan eta Andoain ezinezkoa zela esan digute». Emaitzak berriz, hurrengo astean jasoko dituzte.

LEABURU ▶



Anjel Arrospe finaledietarako sailkatu zen asteartean. HITZA

Finalerdietarako txartela lortu du Arrospekek

Urrezko Aizkora Txapelketan Arria V.a eta Lopez kanpoan utzi zituen leaburuarrak

A. IMAZ

Asteartean lortu zuen Anjel Arrospekek Urrezko Aizkora Txapelketako finalerdietarako txartela. Horretarako Xabier Orbegozo, *Arria V.a* eta Lopez Azpilikueta gauditu zituen leaburuarrak, proba guztietan bere nagusitasuna erakutsiz. Finalerdietan Olasagasti, Larretxea eta Nazabal izango ditu arerio.

Karrantzan (Bizkaia) giro paregabea izan zuten lagun aizkolariek eta hauek ere saio ikusgarria eskaini zieten zaleei. Bost ziren egin beharreko probak. Lehenengoan 45 on-

tzako enborra erdibitu behar izan zuten kolpeka; bigarrenen, erlojuaren aurka aritu behar izan zuten; zutikakoa zen hirugarrena. Laugarren ahalginean 60 ontzakoa erdibitzea egokitu zitzaizen aizkolariei; bosgarrena zen probarik luzeena. Bertan 45 ontzako bi enbor eta lau kanaerdiko erdibitu behar izan zituzten.

Azken denborak Arrospekeren nagusitasun garbia erakutsi zuten; Arrospekeren marka 16.15 minutukoa izan zen. Lopez Azpilikuetak 18.12 minutuko denbora egin zuen eta *Arria V.a* errezilarrak 19.44 minutukoa.

AMEZKETA ▶

Haurtzaindegian izena emateko epea zabalik

Amezketan mediku etxean hobekuntzak egin zituzten haurtzaindegi bat egiteko. Dagoeneko bukatuta, haurrek hurrengo irailan lekua izan dezaten izena emateko epea gaur zabaldu dute. Udalletxean eman behar da izena, eta baldintzen artean, haurtzaindegian sartu orduko haurtxoak 16 aste gutxienez izatea eskatzen da. Urte bete artekoentzat da zerbitzua.

BERASTEGI ▶

Larunbatean 'Sua' filmaren grabaketa

Izaskungo grabaketaren ondoren, hurrengo grabaketa antolatu dute Eneko Aritzaren Lagunek. Oraingoan Berastegin grabatuko dute. Eszena nahiko erraza izanen dela jakinarazi dute eta 11:00etan Ibarrako plazan elkartuko dira. «Jantzi, janari nahiz edariak gure esku jango dira, beraz, aitzakiarik ez», azaldu dute EALkoek deialdi zabalaz.

ALBIZTUR ▶

Bihar arau ordezkatzaileri buruz bilera

Bihar, Albizturko Alberto Labaka alkateak deitutako bilera izango da, herriko Kultur Etxean. Bilera berezia izango da: lurren inguruko arau ordezkatzaileri buruz ari direnez, horren berri eman go dute. Eraikitzeko balio duten lurrak, hirigintzarako, nekazaritzarako... Bilerara herriar guztiak daude gonbidatuta, eta 21:00etan elkartzeko asmoa dute.

Eguneko menuak eta karta Bataioak, Jaunartzeak...

MENDI-ALDE
Jatetxea

San Esteban auzoa, 39 • Tel.: 943 65 17 99 • 20400 TOLOSA

TOLOSAKO INMAKULADA IKASTETXEA

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- ERIZAINNTZA LAGUNTZAILEA
- FARMAZIA

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- DIAGNOSI IRUDIA
- OSASUN DOKUMENTAZIOA
- GIZARTE INTEGRAZIOA
- HAUR HEZKUNTZA

IZEN EMATEA: MAIATZA

ATE IREKIAK: MAIATZAK 17

Kondeko Aldapa, 5-B 20400 TOLOSA
Tel.: 943-673629 www.inmakuladatolosa.com

AGENDA ▶
DEIALDIAK

Irura. Eriz magoaren ikuskizuna 18:00etan plazan, Kultur Astean.
Zizurkil. V. Teodoro Hernandezena ipuin lehiaketako liburuaren aurkezpena eta ipuin kontaketa 17:30ean Abulondo kultur etxean.
Tolosa. Jose Luis Tiradoren *La liga de los olvidados* dokumentala, Kultur Etxean 19:30ean eta 20:30ean mahai-ingurua etorkinen integrazioa, identitatea, bozkatzeko eskubideari buruz, Ereite elkarteak antolatutako jardunaldien baitan.
Tolosa. Sanjoanetan, ekainaren 17an eta 24ean, egingo diren batel estropadetarako izen-ematea hilaren 21ean itxiko da, 607 845282an.
Tolosa. Oargi mendi elkarteak Pirinioetara irteera antolatu du ekainaren 1, 2 eta 3rako, Gran Bachimala eta Pena L'Ixabre mendiak igoz eta Viados aterpean lo eginez. Izen-ematea, 637 830380 telefono zenbakian.
Tolosa. Amaroako auzo elkarteak Araxesko VIII. Mendi Itzulia antolatu du ekainaren 3an. 9-11 orduko iraupena du. Izen-ematea, 637 187748 (Jose Luis) edo auzoetxe@kzgunea.net.

ZINEMA

Tolosa. P. Verhoeven zuzendariaren *El libro negro* filma Leidor aretoan 19:15ean eta 21:45ean, Tolosako Zine-forumean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Areso. Goizueta, F. Loidi ebexa. 112.
Tolosa. Morant, R. Zaballarreta, 1. 943 673649.

IRRATIA

Txolarre irrati
(107.5, 101.2 FM)
 11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAREN errepasoa, elkarrizketak, agenda, lehiaketak, disko eskainiak...
 18:00-20:00. *Tolosaldeko ahotsa* (errepikapena).
 20:00-21:00. *Irauli uhinak*.
 21:00-23:00. *Bide okerretik*.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Aparrak... Gehiegi ote?

ALEGIA ▶ Balorazio «ez oso ona» egin dute IV. Garagardo Azokako antolatzaileek; «iaz bezalaxe, ez da jende gehiegi ibili», esan dute



Giro ezin hobea izan zuten Alegiara hurbildu zirenek. N. URBIZU



Etengabe aritu ziren lanean afariak eta bestelako jakiak prestatzen. N. URBIZU

ERREDAKZIOA

Aparra gora eta aparra behera. Intxurre kirol elkarteak antolatutako Garagardo Azokan hori izan zen nagusi asteburu osoan Alegiko pilotalekuan. Guztira bederatzita garagardo ezberdin dastatu ahal izan zituzten bertaratu zirenek eta afaltzeko aukera ere izan zen bertan. Kirol elkarteak kirolariak gogotik egin zuten lan, sukaldean edota barra atzean, bisitarien gozamenerako. TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK ere ez zuen hitzordua galdu nahi izan eta laguntzaile bezala azaldu da azokan.

Nahiz eta diru kontuak oraindik zehaztu gabe dituzten, antolatzaileek adierazi dutenez, laugarren edizio honetan, «iaz bezalaxe, ez da jende gehiegi ibili». Arduradunen esanetan, «herri guztietan antolatzen da orain azoka eta jendea agian nekatu egin da». Hala ere, pilotalekua erruz bete zen bi egunetan eta, ondoren, Alegian «giro polita izan zen».

Antolatzaileek falta gehien somatu dutena «kanpokoena baino, herriko bertako jendearen parte-hartzea» izan da. «Lehen edizioetan bai mugitu zirela, baina oraingoan gazteak baino ez dira azaldu», adierazi dute antolatzaileek.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Luisa Jauregi (Gaztelu).
 Gaur 93 urte.
 Zorionak familiaren partetik.



URTE ASKOAN
 Muxu potolo bat ebekoen partetik.
 Zorionak. Maite zaitugu.



ZORIONAK!
 Amasa-Villabonako ttikia. Hirekin gaude eta lortuko diagu. Osasuna eta askatasuna